

JON ZARATE SESMA

EUSKARA ESPARRU
GUZTIETAN
NATURALITASUNEZ
ERABILTZEN DUEN
ETORKIZUNEKO
UNIBERTSITATEA

Aldizkari honetako 57. zenbakiko artikuluan (Aurrera egin ahala erronka berriak, 2017) aipatzen nuen bezala, euskarak bizi duen bidegurutzean erabilera izan behar da helburu nagusia. Iritzi-artikulu honetan, aldiz, Euskal Herriko Unibertsitateko esparru ezberdinetan euskararen erabilera eragiten duten gakoak azterketa egiten saiatuko naiz.

UPV/EHUK, sortu zenetik, unibertsitate mailako euskararen normalizazioan eta goi-mailako profesional euskaldunen formazioan jarri ditu bere indar guztiak. Gaur egun, erreferentzia nagusi bihurtu da euskara akademiko eta profesionalaren garapenean eta Euskal Herriaren garapen soziokulturalen. Baina zerbitzua euskaraz emateko, irakasgaiak euskaraz eskaintzeko edota doktorego tesiak euskaraz egiteko plangintzetan ahaleginak

egin beharrak, arautugabeko euskararen erabilerari protagonismoa kendu dio. Goi-mailako euskararen estandarizazioa gauzatzeko hiru hamarkada buru belarri aritzea beharrezkoa izan da, ondorioz, lanetik eta ikasgeletatik kanpoko esparruetan erabilera bultzatzea ez da lehentasuna izan.

la osotasunean kide guztiak Belarriprestak dituen eta Ahobiziak naturaltasunez eroso ari diren unibertsitatea lortu nahi badugu, epe ertainean ondoko gakoak izan beharko genituzke kontuan, nire iritziz:

- 1- Lehendabizi, unibertsitateko eremu ezberdinetan euskararen erabileraren egoera ezagutu beharko genuke. Horretarako, lan esparruan, ikasgelan eta baita lan esparrutik edota ikasgeletatik kanpo ere, euskara zenbat erabiltzen den ahalik eta zehatzen neurtu beharko litzateke. Neurketarako metodologia zientifikoko egokietan oinarritutako tresnak erabili beharko lirateke eta unibertsitateko komunitateak bere ekarpenak egiteko baliabideak garatu beharko lirateke. Diagnostikoa zenbat eta zehatzagoa izan, orduan eta ekintza plan osatuagoa eta eraginkorragoa diseinatu ahalko dugu.

2- Bigarrenik, 2018ko urriaren 6an Euskaltzaindiaren XVIII Kongresuaren itxieran balantzea eginez, Andres Urrutia euskaltzainburuak esan zuen bezala, obrak mintzo. Bada erabat ados nago berekin, euskararen erabilera handitzeko plangintza ona diseinatzea garrantzitsua bada ere, plangintza hori betetzeko martxan jartzen diren ekintzak (obrak) dira mugarrak. Obra gehiago, anitzagoak eta unibertsitatearen testuingurura egokituak behar ditugu.

3- Hirugarrenik, martxan jartzen diren ekintzen arrakasta bermatzeko gakoa da erabateko babes instituzionala eta euskararen sustapenerako unibertsitatean sortuta ditugun egitura guztiek modu aktiboan lan egitea. Azpimarra jarriaz egunerokoan harremanak dituzten talde naturaletatik hurbilen dauden lantalde eta batzordeetan (ikastegietako euskara batzordeak, ikasle batzordeak edota irakasleek osatzen dituzten sailak).

Aipatutako gakoetan oinarrituta, badira pare bat urte UPV/EHU euskararen erabilera aktibatzekeo estrategiak lantzen ari garela. Zehazki, iaz Aktibatu programa jarri genuen martxan. Hizkuntzarekin ditugun inertziak astinduz, hizkuntza-ohituren aldaketarako estrategiak garatuz, euskararekiko erantzukizunaren eta jokabideen hausnarketa bultzatuz eta taldean batera lan eginez, euskara erabiltzeko testuinguru eta egoera berriak, abegikorragoak eta babestuagoak sortu nahi dira egitasmo honekin.

Esan bezala, Aktibaturen lan-ildoan artean hizkuntza-ohituren aldaketarako estrategiak lantzea da, hain zuzen ere, Euskaraldiaren beraren helburu nagusia. Adituen arabera, hizkuntza gutxietan ordezkapen linguistikorako prozesuak eta normalizazioa gauzatu daitezten, eztabaida erabilera linguistikoak jorratzen dituen eta era kolektiboan partekatzen den kontzientzia existitu behar da. Hau da, jarrera linguistikoen menpe dago (Castelló, Ciscar, González y Pérez, 2001). Baina horren gainera, iruditzen zait unibertsitatea hizkuntzaren erabilerarekin zerikusia duen gune esanguratsua dela. Kasu batzuetan, unibertsitatea aukeratzen baita euskaraz egiteko gune gisa, eta hor sortzen diren harremanak finkatu egiten dira aurrerantzean. Beste batzuetan, hiztun berriek topo egiten dutelako hiztun zaharrekin eta euskalkiekin, eta horrek

UNIBERTSARIOEK EUSKARAZ BIZITZEKO DUTEN BORONDATEARI BULTZADA EMAN BEHAR ZAIO

eragina du bere gaitasunei buruzko auto-pertzepzioan. Modu batean eta bestean, unibertsitatea gune garrantzitsua da euskararen erabileraren ikuspegitik eta hori aprobetxatu beharra daukagu.

Zalantzarik gabe, politika publikoek garrantzi handia dute euskararen erabilera indartzeko orduan. Baina bada bultzada bat, indar bat, legeek edo proiektuek ordezka ezin dezaketena: hiztunen borondatea. Unibertsitarioek euskaraz bizitzeko duten borondateari bultzada eman behar zaio. Euskaraz bizitzeko gogo horrek duen indarrak baldintza sozial gero eta egokiagoak aurki dituzten eta euskaraz bizitzea gero eta ohikoago bilaka dadin estrategia berriak martxan jarri behar dira. Adibidez, nahiz eta aipatzera noanak sinplekeria dirudien, euskaraz dakigunok lehen hitza beti euskaraz egingo bagenu, asko aurreratuko genuke. Hain sinplea dirudien helburu hau ez dugu egun batetik bestera lortuko. Orain arte egindako bideak erakutsi digu unibertsitate mailako trantsizio linguistikoa lortzeko zenbat baliabide eta lanordu behar diren. Hori dela eta, gaiari lehenbailehen heltzea ezinbestekoa da.

BIBLIOGRAFIA

ZARATE SESMA, Jon (2017). Aurrera egin ahala erronka berriak. *Hermes*, 57:138-141.

CASTELLO, Rafael; CISCAR, Lorena; GONZALEZ, David eta PEREZ, Pablo (2001). Lealtad y actitudes lingüísticas hacia el valenciano en los entornos urbanos de la Comunidad Valenciana. *Comunicación*. VII Congreso Español de Sociología.